

Jakinarazpena:

Irabazi xederik gabeko elkarteei diru laguntzak emateko **behin betiko erabakia**

Erabakiaren datuak:

Eguna	2014/10/17
Organoa	Tokiko Gobernu Batzarrak

Tokiko Gobernu Batzarrak, goian aipatzen den egunean, **ondoko hau erabaki du:**

Herri Partaidetza Zerbitzuak ikusirik elkarteek beren helburuak lortzeko egiten duten lan handiaren bidez Donostiaren kalitate urbanoa eta ongizatea hobetzen zuzenean eragiten dutela, diru laguntza batzuk ematea proposatzen du, bere aurrekontu baliabideen eta Gobernu Batzarrak 2014ko urtarrilaren 24an onartu eta 2014ko otsailaren 12an, G.A.O. 28. Zb, argitaratu ziren arauen arabera, Auzo elkarteentzako eta bigarren graduko lurralde entitateentzako, beren ohiko ekintzak kudeatzeko mantentze gastuak eta material inbentariagarria ordaintzeko (2.2. eranskina)

Eskabideak egiteko epea pasa ondoren, oinarrietan jarritako irizpideei begiratu eta egindako eskabideak aztertu ditu izapideak egin dituen organoak. Hala, eskabideak balioetsi eta txostena egin du, behin-behineko ebazpen proposamena duena. Ondoren, gai hau aztertzeko eratutako Balorazio Batzordeak organo izapidegilearen balorazioa aztertu du, eta behin-behineko ebazpena Udalaren webean eta iragarki oholetan argitaratu da, eta legeak jartzen duen epea eman zaie entitateei egoki jotzen dituzten helegiteak egiteko bidea izan dezaten.

Azterketa eta ondorioak Balorazio Batzordeak eginiko txostenean jasotzen dira.

Epe horretan ez da helegiterik aurkeztu.

2.2 atalerako dirulaguntzetarako, guztira 28.903 euro dauzka aurreikusita Udalak.

2.1 eranskinean izandako 8.360,39 € soberakinaren aurrean, berariazko oinarrietako 8. Artikuluan xedatzen den moduan soberakin hori erabiltzea erabaki da 2.2. eranskineko diru laguntzetarako xedaturiko zenbatekoa gehitzeko.

Hala, Gobernu Batzarrak eskuordetzan emandako aginpidea erabili eta hauxe da Informazioko, Partaidetzako eta Ingurumeneko Zinegotzi Ordezkarri honek Gobernu Batzarrari proposatutako



ERABAKIA:

1.- Ondoren azaltzen diren entitateei taulan azaltzen diren **diru laguntzak ematea**, 2014ko otsailaren 12ko GAO on argitaratutako deialdiaren oinarrien 2.2 eranskinaren arabera, Auzo elkarteentzako eta bigarren graduko lurralde entitateentzako, beren ohiko ekintzak kudeatzeko mantentze gastuak eta material inbentariagarria ordaintzeko :

2.2 eranskineko Elkarteentzako diru laguntzak 2014						
Elkartea	IFZ	Diruz lagungarriak diren kopuruak	Haztapenaren ondorengo hasierako kopuru diruz lagungarria	Diru laguntzaren gehienezko muga *	Gehienezko soberakin birbanaketa	Diru lagutza guztira
Amara Bai	G20803284	40.700,00 €	8.710,75 €	1.960,00 €		1.960,00 €
Amara Berri	G20559282	6.576,00 €	1.401,74 €	1.960,00 €	529,45 €	1.931,99 €
Añorga Txikitarrak	G20585121	11.880,00 €	2.560,17 €	1.960,00 €		1.960,00 €
Altza XXI	G20848370	3.370,00 €	1.052,27 €	1.960,00 €	529,45 €	1.587,72 €
Egia Bizirik	G20801502	1.630,25 €	970,78 €	1.630,25 €	529,45 €	1.500,23 €
Elkartasuna	G20432779	9.450,00 €	1.546,30 €	1.960,00 €	413,70 €	1.960,00 €
Herripe	G20187746	3.545,00 €	1.306,56 €	1.960,00 €	529,45 €	1.885,01 €
Hondarpe	G20521217	3.900,00 €	1.158,56 €	1.960,00 €	529,45 €	1.680,01 €
Igeldoko Herri Kontseilua	G20578258	4.600,00 €	1.985,00 €	1.960,00 €		1.960,00 €
ILAE	G20534756	1.436,00 €	812,51 €	1.136,00 €	323,49 €	1.136,00 €
Intxaurdi	G20446183	2.422,00 €	1.017,80 €	1.960,00 €	529,45 €	1.572,25 €
IZBE	G20678512	2.100,00 €	1.029,41 €	1.850,00 €	529,45 €	1.588,86 €
Lanberri	G20208799	8.646,00 €	2.057,05 €	1.960,00 €		1.960,00 €
Lantxabe	G20769295	9.970,00 €	1.847,37 €	1.960,00 €	112,63 €	1.960,00 €
Loiolako Erriberetako Auzo elk. AVERIL	G20934295	8.560,00 €	1.657,43 €	1.960,00 €	302,57 €	1.960,00 €
Morlanstarrak	G75076026	695,19 €	714,14 €	535,19 €		535,19 €
Oletako A.E	G20826301	5.510,00 €	1.381,50 €	1.960,00 €	529,45 €	1.909,55 €



2.2 eranskinen Elkarteentzako diru laguntzak 2014						
Elkartea	IFZ	Diruz lagungarriak diren kopuruak	Haztapenaren ondorengo hasierako kopuru diruz lagungarria	Diru laguntzaren gehienezko muga *	Gehienezko soberakinen birbanaketa	Diru laguntza guztira
Osteguna	G20491767	4.700,00 €	1.206,65 €	1.960,00 €	529,45 €	1.73,10 €
Parte Zaharrea Bizi	G75064451	8.500,00 €	1.813,90 €	1.960,00 €	146,10 €	1.90,00 €
Sarroeta	G20403408	3.559,05 €	986,35 €	1.539,05 €	529,45 €	1.515,80 €
Ulia	G20066692	3.500,00 €	1.022,68 €	1.960,00 €	529,45 €	1.52,13 €
Urumea Ibaia	G20889051	2.198,00 €	1.024,47 €	1.798,00 €	529,45 €	1.53,92 €

* Diru laguntza deialdiaren oinarrien arabera, inoiz ez zaizkio 1.960 € baino gehiago emango onuradun bati. Bestalde, diru laguntza ezin daiteke izan elkarte bakoitzak bere eskaeran zehaztu duen defizita baino haundiagoa. Ondorioz, muga horiek gainditu dituzten eskaeretan suertatu diren soberakinak, aurtengo kasuan 7651,9 €, muga horiek gainditu ez dituzten elkarten artean birbanatzen dira, aurrekontua agortu arte.

2.- Oinarrien arabera, honako eskaerak baztertzea ondoren azaltzen diren arrazoiak azalduz.

Elkartea	IFZ	Arrazoa
Añorga K.K.E	G20189601	Ez da auzo elkarte edo eta bigarren graduko lurralde erakunde.
Gune irekiak	G75084046	Ez da auzo elkarte edo eta bigarren graduko lurralde erakunde.
Demagun	G20958237	Ez da auzo elkarte edo eta bigarren graduko lurralde erakunde.
Ernabido Elkarte	G75091454	Ez da auzo elkarte edo eta bigarren graduko lurralde erakunde.
Ikertze	G20344305	Ez da auzo elkarte edo eta bigarren graduko lurralde erakunde.



3.- Finantza Zuzendaritzaren Diruzaintza Burutzak **onarpena eman diezaiola kopuru horiek ordaintzeari** diru laguntzak arautzeko oinarrietan jarritako eran (2.2. eranskineko 7. art.: %70 Gobernu Batzarrak onartutakoan eta beste %30a ekarri beharreko egiaztagiriak ekarri eta gero).

4.- Gastua (37.263,36 €) 2014ko gastuen Aurrekontu Orokorreko Herri Partaidetza Zerbitzuko 481.01 kontu sailari **eranstea**.

5.- Erabaki hauek udal iragarki-oholean **argitaratuz jakinaraztea**.

Eta hala jakinarazten dizut, jakin dezazun eta behar

diren ondorioetarako :

1.- Hamabost eguneko epea izango dutela, jakinarazi eta biharamunetik, diru laguntzari uko egiteko. Diru laguntza onartutzat joko da lehen aipaturiko epean berariaz ukorik adierazten ez badute.

2.- Erabaki honek amaiera ematen diola administraziobideari eta hortaz honen aurka berrikusteko errekurtsua harri ahal izango duzula Tokiko Gobernu Batzordearen aurrean eta horretarako hilabeteko epea duzu, edo bestela zuzenean aurkatu dezakezu bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Esandako epeak jakinarazpen hau Udaletxeko iragarki taulan jarri den hurrengo egunetik hasiko dira, 2014ko urriaren 17an jarria izanik.

Donostia, 2014ko urriaren 17a

HERRI PARTAIDETZA ZERBITZUAREN BURUA

Amaia Agirreolea Gómez